



Gas Pasaia

tel.: 943 395 786



ESAIGUZU NOLA ORDAINDU NAHIKO ZENUKEEN ZURE ETXEAN GAS NATURALAREN INSTALATZEA

Gas Pasaiak, abantailak eskaini nahi dizkizu gas naturala modurik errazenean, erosoenean eta ekonomikoenean goza dezazun.

Jarraitu honako urrats hauek!

1. Eskatu zure instalazioaren aurrekontua enpresa instalatzaile bati.
2. Zoaz Kutxa, Banco Guipuzcoano edo Euskadiko Kutxako bulegoren batera aukeratutako aurrekontuarekin.
3. Eskatu kreditua oso interes bereziarekin: %5 lehenengo urtean, eta 8 urtetan itzultzeko.
4. Zure enpresa instalatzailea Gas Pasaian laguntzaileetako bat baldin bada, lehenengo urteko interesen %100a aurreztuko duzu. Eta ez baldin bada, lehenengo urteko interesen %50 ordainduko dizugu.

Instalatu Gas Naturala, etenik gabe hornitzen den energia, eroso, garbia eta ekonomikoa !

branka

Pasaiaiko herri-aldizkaria

Mikel Olaziregi zinemaren baitan



2002ko urria

31 zenb.

Pack Gaztea

95€

eta Pack bakoitzarekin buruko hau opari



Pack-a: lente kaxa bi + Ilikidoak



BERGARA
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA
Tel. 943 88 99 88



EIBAR
Tel. 943 20 05 22



ERRENTERIA
Tel. 943 51 78 11



MULTIOPTICAS
esklusiban

laburrean

>4. EZ ZAITEZ MOZTU

>6-12. BARRUTIZ BARRUTI

>14. ERREPOR-TAJEA

Pasaia Ontziola krisialdi latzean

>18. KALE-INKESTA

Bizi zaren barrutia alde batera utzita, zein barrutira joango zinateke bizitzera?

>20. ELKARRIZKETA

Mikel Olaziregi, Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko zuzendaria

>25. OROKORREAN

>26. KRITIKAK

>27. HORRELA-KOAK GINEN, IRAGANARI BEGIRADA

Branka hilabetero zure postontzian debalde jaso nahi baduzu, ez duzu behelaldean duzun kupoia besterik bete behar eta helbide hauetara helarazi:

harpidetza
txartela

Izen deiturak.....
Helbidea.....Herria.....
KP..... telf..... e-posta.....

postaz
Branka Pasaia herri-aldizkaria
Eskalantegi 38, behea. 20110 Pasaia
telefonoz
943 34 10 45 telefonora deituaz
e-postaz
branka@euskalnet.net helbidean

Aldizkari honek erakunde hauen laguntza jaso du:



Pasaia Udala



Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentua


ELIOTSI
OBREN ONDORIOZ:
Eskalantegi 48-AN
GAUDE, PROBISIONALKI.
BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZIA
MALATZAREN LEHENA 3. 30110 PASAI ANTZO. GIPUZKOA.
943 530888.

Loradenda MAIALEN
Ezkontzarako lore-sortak
Lore-erdikaldeak
Lore-koroak
Etxez-etxeko zerbitzua
Nafarroa etorb. 16
tel.: 943 52 84 91 20110 PASAI ANTZO

IPARRA taberna
M I E H
Tel.: 943 34 01 64 PASAI ANTZO



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa
zuri esker gracias a ti



Jaizkibelgo Superportua

Mamu batek harrapaturik dago Jaizkibelgo superportuaren egitasmoa. Gero eta agerikoagoa da proiektuari eusten dioten bakarrak naturaren esplotazioa muturreraino eramateko nahiz gizartearen premiak nabarmen manipulatzeko Portu Agintaritzak erakusten duen jarrera abusatzailea eta arrazoigabekeria hutsa direla. Hori dela eta, Portuko Agintaritzak superportuaz egiten dituen adierazpenetan atzematen diren fantasmak parodiatu nahi izan ditugu, honako hau salatzen:

- Batetik, azpiegitura erraldoi honek Jaizkibelgo itsasertzean eragingo lituzkeen kalteen larritasuna modu eldarniagarrian ezkutatu nahi duela. Adibidez, superportuak eragingo lituzkeen kalteen aurrean egitasmoa zalantzan jarri dutenen ahotsak zabaltzen ari direla ikusita, Portu Agintaritzako lehendakariak honako hau dio zitalkeriaz beterik: "Landaretza oso urria da, eta animaliei dagokienez, kaio ilun kabi pare bat baino ez dago, mendiaren beste aldera aldatu daitezkeenak gainera, gehienak han kokatzen baitira (...). Denok margaritak nahi baditugu, bada, orduan Montanako zelaietara joan eta han geratzen gara". Hamaika entzuteko jaiok gara!

- Eta, bestetik, faltsukeriazko beharrianak errealtzat ematen dituela (goi-mailako erabaki politiko baten ondorioz egiten du hori nonbait, bizi dugun erokeriazko globalizazio kapitalistaren prozesuari jarraiki). Honi dagokionez, Portu Agintaritzaren esanak, gero eta hutsalagoak eta kontraesankorrak dira gainera, superportuaren bideragarritasun ekonomikoa zurrizteko ezgai bihurtuta. Hala, superportuaren eraikuntza aurreikusitako 601 milioi euroko (100.000 milioi pezeta) xahuketa ekonomikoaren justifikazio falta berretsi baino ez du egin Portuko Agintaritzak, berriki, Gipuzkoako Alderdi Popularrak "arrazoi ekonomiko eta ingurugiroarekikoak" alegatuz egitasmoa zalantzan jarri duenean. Izan ere, alderdi horrek adierazi duenez, ez da merkatal irabazi garbirik frogatu, eta "bere errentagarritasuna justifikatzen duen azterketarik ez da oraindik ezagutzera eman", ingurugiroarekiko eraginak, aldiz, "oso garrantzitsuak" direla egiaztatu den artean, "proiektua berez hankaz gora botatzeko arrazoi nahikoa izanik". Jakina, esandako horien atzean, azpijokoren bat gordetzen dela pentsatzekoa da (esanak haizeak eraman, eta egingo dituenak auskalo), baina nolana ere, harrigarria izan da Portuko Agintaritzak berehala emandako erantzuna: alegia, inbertsio horien justifikazio gisa orain arte superportuak "merkantzien trafikoa bikoiztea" ahalbidetuko lukeela birritan esan ondoren, oraingoan berriz "merkantzia gehiago irabazi ez arren Portu Agintaritzak superportua egitearen aldekoa dela" adierazi baitu, "bere onura sozialengatik". Posible al da baina superportu bat halako sasi-argudioen izenean ezartzea?

Bien bitartean, ez dirudi superportuaren eta azpiegitura lan handien alde diharduten botere mediatikoek jendearen pentsatzeko gaitasun kritikoa ezabatzea lortu dutenik, eta egitasmoak Pasaialdean arbuio sozial zabala jaso duela erakusten dute, bai Pasaian aldizkariak kaleratutako iritziek eta bai superportuaren aurka dagoeneko jaso diren 1.200dik gora sinadurek. Pasaialdeko Udalak, bestalde, Portuko Agintaritzak superportuaren aurreproiektua burutu ahal izateko Jaizkibelen hasitako zundaketa eta azterketa geologikoak geldiarazi zituen abuztuaren 28an (lizentziarik gabe ari zirelako), eta ondoren Portuko Agintaritzak azarora arte atzeratu du superportuaren Aurreproiektuaren eta Ingurumenarekiko Eraginaren Azterketaren aurkezpena; eta aurkezpen hori bere mezu propagandistikoa hedatzeko eta naturari era berezian erasotzen dion proiektu txikitzaile honen "garbiketa berdea" egiteko erabiliko duela iragarri dezakegu.

Badugu beraz zereginik, gizartearen erantzunari bultzada bat emateko mugitu behar dugulakoan gaude: dagoeneko nabariak dira proiektu erraldoi honen atzean ezkututzen diren gezurra eta engainua. Ez dezagun utzi errealitate bihurtzen!

Jaizkibelgo Superportuaren Aurkako Taldea

Gorka Zulaika, urtebete askatasunik gabe

Urriaren 31ko goizaldean eraman zuten Gorka Zulaika antxotarra etxetik, bere seme eta bikotearen ondotik. Ordudanik hona, urtebete eman du Madrilgo Valdemoroko espetxean epaiketa zain, eta oraindik bertan dirau.

365 egunetan zenbat gauza egin ditugun pentsatzearekin batera, Gorkak zenbat gauza ez dituen egin, zenbat gauza ez dituen ikusi, zenbat sentimendu ez zaizkion sortu, finean askatasun ezak sortzen dituen hainbat eta hainbat mixeri etortzen zaizkigu burura, lagunak, senideak...

Gorka euskal presoan eskubideen aldeko lanean aritzeagatik atxilotu zuen Garzon epaileak, 18/98 izeneko kalitate exkaxeko beldurrezko ipuin batekin, auto bilakaturik. Euskal Herriaren aurkako eta ez Euskal Herritar batzuren aurkako autoa da hau, estatuak urte batzutatik hona jarraitzen duen estrategiaren buru izanik botere judiziala. Nabaria da botere politiko eta judizialaren arteko lotura gaur egun inoiz baino haundiagoa dela, ia bata bestetik desberdintzen ez delarik. Justiziaren independentziaz hitzegiten dute, eta aldi berean Espainiako legedia bere neurrian betetzen duen epaile bat ia sutara bota dute, preso politiko bati 3. gradua aplikatzeagatik. Gainera, presondegietan euskaraz hitzegitea ere ezinezkoa izango zaigu hemendik aurrera Madrilgo epaitegi probintzialak kaleratu berri duen (beste) auto baten ondorioz.


Gorka etxetik 900 kilometrotara dago dispertsatua, 365 egun daramatza bahitua, 640 preso politiko daude dagoeneko, horietatik 511 dispertsatuak, 121 presok beren kondenen hiru laurdenak bete ditzuzte, beraz etxean behar lukete. Datuak besterik ez dira, errealitate bortitza isladatzen duten datuak.

Pasai Antxoko Euskal Presoen aldeko ekimena

Zabortegi bat herri erdian

Pasai Antxoko 'Campa' inguruan bizi naizen bizilagun bat naiz. Orain arte, Udalarekiko (neure kasuan Donostia), Foru Ogasunarekiko eta bestelako erakundeen zergak egunero ordaindu ditut, zailtasunak-zailtasun. Hala ere, nik aipatu erakundeekiko dudak zintzotasun ekonomikoari amaiera ematea pentsatzen ari naiz, hauek ni bizi naizen ingurunea guztiz utzia baitute. Batetik: zer arraio gertatzen da 'Campa'ko orubearekin? Betirako izan behar al du aparkaleku? Hala bada, zergatik ez dute lurra txukuntzen? Non daude hauteskundeetan politikariek egin zituzten adierazpen polit horiek? Bestetik: 'Campa' ondoan dauden zaborra botatzeko kontenedoreen inguruak zabortegi bat dirudi, han beti telebista zaharrak, altzarien hondakinak, gurpil zaharrak eta horrelakoak egunero aurki batitzakegu. Zabortegi bat jarri al dute herri erdian?

Jose Hernandez Irazusta



BRANKA ALDIZKARIKO ERREDAKZIOAREN OHARRA

Begi aurrean duzun hau zure hitzak jasotzeko Brankak eskaintzen dizun lekua da. Aurrerantzean ere zuen guztien gutunak jasotzeko irrikan gaude; kezkek, txaloak, kritikak, iradokizunak... den denak izango du lekua gure postontzi pottolo honetan. Beraz, anima zaitzete, eta gehiago pentsatu gabe igorri zuen eskutitzak kontrazalean ageri zaiuzen helbidera. Laister arte.

Branka aldizkariak ez du bere gain hartzen atal honetan adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

donibane

Arantxa eta Mikelekin solasaldian

Aurreko zenbakian Pasai Donibaneko musika egoeraz hitz egin genuen eta zenbaki honetan gaia sakontzea interesgarria izango zela pentsatu dugu. Horretarako Pasai Donibanen musika arloan urte askoz lana egiten ari diren Arantxa Sein eta Mikel Arregirekin elkarrizketa bat eduki dugu. Arantxak 15 urte eta Mikelek 13 urte daramatzate Itxas Mendi Musika Taldean.

Konpara ezazue Pasai Donibanen musikaren egoera hasi zineten garaian eta gaur egungoan.

Orain dela 15 urte ikasle ugari zegoen Pasai Donibanen baina gaur egun matrikulazioa eskasagoa da. Honetaz gain, orain dela 15 urte kalean gaur egun baino talde ugari edo musikaren presentzia handiagoa zen.

Zuen ustez zer gertatu da egoera honetan egoteko?

Orain dela hamar urte gutxi gorabehera, Trintxerpe fundazioa sortu zen, gaur egungo Pasaia Musikala, eta proposamen bat egin ziguten, gu ere bertan sartzearena. Momentu horretan alde onak eta txarrak ikusten genizkion proposamen horri. Alde ona, ikasleek ikasgai gehiago ikasteko aukera edukiko zutelako eta ikastea merkeago izango zela. Alde txarra, ikasleak Trintxerpera joan beharko zirela. Eta hori gertatu zen; ikasle askok musika-ikasketak utzi zituzten Trintxerpera joan nahi ez zutelako eta beste batzuk Lezora bideratzen hasi zirelako.

Beste arrazoi bat, orain dela 20 urte gurasoak oso motibaturik zeuden, eta seme-alaba gehienak musika eta dantzan apuntatzen zituzten. Gaur egun ez dago motibazio hori.

Azkeneko arrazoi bat, gaur egun haur gutxi daude, eta aktibitate asko dutenez, musikako talde bat osatzeko arazoak izaten ditugu, Pasai Donibanen lengoia musikala edo instrumentu bat emateko tal-

de minimo bat osatu behar baita.

Momentu honetan berdin jarraitzen duzue?

Urte batzuetan Pasai Donibanen bertan ez zegoen ikaslerik, baina orain dela bost urte berriro herrian klaseak ematen hasi ziren. Hasieran 10 ikasle besterik ez zeuden baina aurten 30 ikasle matrikulatu dira

Egoera hau nola konpon daiteke?

Arantxa eta Mikel: Pasai Donibaneko biztanle askok oraindik ez dakite bertan musika ikasteko aukera dagoenik, eta hori dela eta, aukera hori aditzera eman behar zaie. Beste aldetik, musika ikasten ari diren ikasleek kalean presentzia handiago edukiko balute, adibidez Olentzero, Santa Ageda... egunetan, ikasleak agian motibatuko lirateke eta hauek ikusten dituzten haur eta gazteak ere bai. Iazko ikasturte bukarran herriko zineman

musikako ikasleek emankizun bat eskaini zuten eta hori urtero egitea ere lagungarri jotzen dugu.

Argi dago denen esku dagoela Pasai Donibaneko musika-egoera hobetzea, zeren ez baita oso normala gaur egun ikasteko aukera zabalago eta merkeagoa izan, eta aldiz ikasle gutxiago izatea. Ea denen artean berriz lortzen dugun Pasai Donibanen bizi zen musika giroa berreskuratzea.



San Juango hainbat datu demografiko

San Juanen 2.509 biztanle bizi dira. Hauetatik 1.267 emakumezkoak ditugu (%50,5) eta gizonezkoak, 1.242 (%49,5). Pasaia osoak, berriz, 16.694 biztanle ditu. Horrela, San Juango biztanleriak Pasaia osoaren %15a suposatzen du.

Hurrengo taulan gure herriko kale bakoitzean zenbat jende bizi den ikus daiteke. Datu hauen ara-

bera, Donibane kaleak duen pisua (%29,9) argi eta garbi atzematen da. Bigarren maila batean Lezo Bide (%18,7), San Roque (%14,1) eta Bordalaborda (%13,5) kaleak aurkitzen ditugu. Koadroa osatzeko datuak 2001eko ekainaren 30ko Udal Erroldatik atera dira.

Kaleak	Emakumeak	Gizonak	Guztira	%
Bonantza pasealekua	44	52	96	3,8
Bordalaborda	167	171	338	13,5
Arrokaundieta bidea	3	2	5	0,2
Jaizkibel	4	8	12	0,5
Larrabide karretera	13	15	28	1,1
Donibane kalea	391	358	749	29,9
Donibane ibilbidea	15	12	27	1,1
J. Joakin Otaegui plaza	13	8	21	0,8
Lezo bide	227	241	468	18,7
Lourdes-txiki	76	77	153	6,1
Juan XXIII	137	121	258	10,3
San Roque	177	177	354	14,1
Guztira	1.267	1.242	2.509	100,0

Udalbiltza bulegoaren ate zabaltzea

Urriaren 19an Pasai Donibaneko Udaletxean Udalbiltza bulegoa zabaldu zuten eta hori zela-eta herrian hainbat ekintza ospatu zen, esate baterako txistularien diana, agurra... Eguerdiko 12etan jende ugari bildu zen Udaletxe aurrean eta EHNA (Euskal Herriko Nazio-tasun Aitormena) egiteko aukera eduki zuten. Jakinarazi ere hemen-

dik aurrera Udaletxeko Udalbiltza bulegora joanez gero EHNA egiteko aukera badagoela. EHNA egiteko hiru gauza behar dira:

- 1) Erroldaren (Padroiaren) agiria.
- 2) Hiru argazki.
- 3) Ordainketaren agiria.

San Juan tropikala

Hona hemen aurreko zenbakian argitaratu ez genuen Sanjuango tropikalizazioaren irudi adierazgarri bat.



komikia
Joseba Antxustegietxarte

san pedro

Sortzez marroia, beltza eta kakia

Betidanik izan ditugu sanpedrota-
rrok, aho puntan eta zapatetan,
txakur kakei buruzko irizpide eta
egonaldiak.

Agian, askok ez genekiena zera da,
Pasaiaiko Udalak 2000ko martxoan

badu, txakur-jabeak edo txakurra
daramanak dauka jasotzeko ardura.
Horretarako poltsa iragitzetan sartu,
poltsa itxi eta zakarrontzietara edo
udal zerbitzuek adierazitako beste
tokietara botako du, etxeko zabor-
poltsan ere bota ahal du udal zabor-
biltzaileek eraman dezaten, eta es-
tolderia-sareko hustubideetan ere
bota dezake.

TXAKUR BATEK BIDE PUBLIKOA
ZIKINTZEN BADU, HERRITARREK
ESKUBIDEA IZANGO DUTE TXA-
KUR-JABEARI EDO ERAMAILEARI
ESKATZEKO ZIKINDUTAKOA GAR-
BI DEZALA.

Zigor-erregimena.

-60. artikulua.

Arau arinak izango dira: ...-Anima-
lien gorotzak bide zein plaza publi-
koetan, haurren parkeetan, lorate-
gietan, leku apaingarrietan eta per-
sonak ibiltzeko lekuetan lagatzea.
Isunak.

-61. artikulua.

Urratze arinak: 10.000tik 50.000
pezetara.

Ordenantza hau 2000ko apirilaren
28an iragarri zen lehen aldiz. Eus-
karaz eta gaztelaniaz.

ren 27an "Animaliak izan eta babes-
teko udal ordenantza" onartu zuela,
eta bertan aurkitzen dela amaierarik
ez duen zera guzti honen giltza.

Hara:

Animaliak leku publikoetan.

-33. artikulua.

Debekatuta dago txakur-gorotza bi-
de eta plaza publikoetan, haurren
parkeetan, lorategietan, parterretan
eta, oro har, leku apaingarrietan
edo jendea biltzen den lekuetan uz-
tea...

...Txakurrak gorotza espaloian edo
oinezkoen igarobideetan lagatzen



Pakito mus- kerra desa- gertu da

Oso ezaguna eta maita-
tua genuen kanposantu
aldean. Honek ondo eza-
gutzen zituen hango
santu guztiak, arimak,
funeralak eta pelikulak.
Iazko gabonetatik ez du
inortxok ere gehiago na-
baritu. Pare bat urte ze-
ramazkien ate erromani-
koan eguzkia hartzen,
panteoi-hilobi-koroak
saltseatzen, euli eta txin-
gurriak jaten, eta hurbil-
tzen zitzaizkion bisitari-
kin solasaldiak izaten. 40 bat cm,

buru laranja, gorputz beltza, buz-
tan beltz-hori-beltza eta osotasu-
nean erabat mutantea, noizbehin-



ka plazara ere jaisten zen ura eda-
tera, eta batzuen batzuk Pasaia
S.A.ren parean ere antzemanan zu-
ten auskalo zertan.

Zure fan ugarik asko maite zaituz-
te eta bururatzen zaizunean, ba,
buelatu.

Kontxo!

Txakur-kaken gauzetan genbiltza-

la, hara zer topatu genuen arkupe-
etako komun publikoetan. Komun
honetako adituek azaldu digute-
nez, norbaitek uzten omen du as-
tero arrasto erraldoi hau bertan.

Kasualitatez edonork pertsonaia
hori harrapatuko balu, mesedez,
ipurtzuloa josi diezaiola.
Adi egon, ipurdiko ileak ustelduak
izango baititu.



jar ezazu
zure
iragarkia
Brankan

HAUXE BAI DELA
MAUKA
POZ BETE ETA GOIA
ZERUKO BODEGOIA
SAN PEDROK HEMEN
DAUKA
San Pedroko Bodegoia

MUGURUZA ARDOAK



ARDOEN
ETA
RIBEIROEN
SALMENTA
hamaiketakoak
eta
meriendak

Torreatze kalea 8, behea 20110
Pasai San Pedro Tel.:943 39 49 44

antxo

Antxotik hegoaldera bada zerbait

Zaila izan zaigun arren, azkenean lortu dugu Kampsakoekin hitzordua finkatzea, Campsa enpresak Antxo eta Molinao lotzen edo aldentzen zituen eraikuntza erraldoietatik gelditzen den eraikinetako batetan. Gaur egun ez dago, ez, errekin gordetzeko depositorik, eta egunero hainbat eta hainbat kamioik egiten zuten joan-etorrien burrunbarik. Hala ere, Campsa zena bizirik dago. Kampsak eta Ardi-gorriko gazteek biziberritu dute garai batetan industrigintzaren ikur izan zen lur-sail mugagabea.



"KAMPSA ETA ARDI-GORRI. SORRERA.

Interes amakomunak zituzten etxe okupatu sortu zirenean bai Kampsak eta bai Ardi-gorri: batez ere gazteentzat eta orokorrean nahi zuen ororen-tzat gure gizartearen ohitura bilakatu diren kulturarekiko pasibotasunaren aurka, sortzeko gaitasuna baino, gogoan duten pertsonen bilgune izatea. Hori lortzea ez da batere erraza izan urte luzetan zehar Molinao aldean kokatzen diren bi gazte talde hauetako kideentzat.

Campsako lokala duela hamar bat urte okupatu zuten zenbait gaztek. Hasiera batetan, era askotako jendea biltzen zen lokal in guru honetan: skaterrak, entsaiatzeko lokala behar zuten taldetako

kideak, besterik gabe 'egotera' joaten ziren gazteak... "Bakoitzak berea egiten zuen, eta gure artean ez genuen lotura gehiegirik. Lokalarekiko ikuspegi ezberdina genuen, eta horregatik ez genuen amankomunean ezertxo ere lantzeko aukerarik ikusten. Gaur egun, hein handi batetan, honekin bukatu dugu eta lokalean egindako berrikuntzetan, kontzertuak antolatzerako orduan eta beste zenbait gauzetan elkarlanak gora egin du", diote Kampsako ordezkariak.

Ardi-gorri, aldiz, duela sei urte sortu zen, izen bera eman zitzaion lokala okupatu ostean. Hasera batetan, koadrila zehatz batetako jendea hurbiltzen hasi zen lokalera, baina denborarekin, atea zabalik izan duen gune okupatua dugu hau. Azken urteetan nabaria izan da Ardi-gorrikoen jarduna Antxon: ihauterietan, San Ferminetan, kontzertuak antolatzen... beti ere hauek bizitzarekiko duten ikuspegi bereziarekin. Gaur egun, lokala berritzen ari dira, etorkizuneko erronkei aurre egiteko.

KAMPSA ETA ARDI-GORRI. ELKARLANA.

Urteen poderioz, ezinbestekoa zen 50 metrok banatzen dituen bi lokal hauetan ibiltzen den jendearen arteko elkarlana. Ardi-gorri lokal txikia da, gainera bertara iristeko toki nahiko zaila da. Kampsak, aldiz, lokal askoz ere haundiagoa da, iristeko erraztasun haundiagoak daude. Ardi-gorrikoek kultur ekitaldiak aurrera eramateko gogoia zu-

ten. Kampsakoek ere. Hortxe sortzen da elkarlana. Honen fruitua da ia astebururo era askotako musika kontzertuak daudela Kampsako eraikinean, bi gune okupatuetako kideek antolatutako. "Gainera, Buenawistako jendeak lokal aproposa ikusi du hemen han entsaiatzen duten taldeekin kontzertuak antolatzeko, eta horrela, Antxo inguruan dauden gune alternatiboetako jendea, ia ustekabean, antolatzen hasi gara, eta azken aldian kontzertu potenteak eskaini dira hemen, atzerriko taldeekin eta guzti, jende pila bat hurbildu delarik honuntz. Gainera, San Ferminetan inoiz baino jende gehiago hurbildu da, eta horrek asko poztu egin gaitu, betiko gauzak, betiko musika eta betiko aspergarritasunetik ihesean etorri baita jendea honuntz".

ETORKIZUNA.

Zalantzarik gabe elkarlana da etorkizunera begira dauzkaten asmoetan gehien azaltzen den hitza. Elkarlanaren ondorio izango baita eskaintza zabal-



teza aldi berean jende gehiago hurbil dadin gune okupatu, eta Kampsakoek dioten bezala, 'aske' horretara. Lokalekoek, gaur egun duen aniztasunarekin ez dute bukatu nahi, bai ordea urtetan zehar izan duten komunikazio ezarekin, "lokalak botatzen ez badizkigute, behintzat".

Antxoko sahisbidearen lanak hasi dira



Hasi dira dagoeneko Antxoren aldatetaren barruan funtsezkoa izango den sahisbidearen lanak. Hauek zehazki Intxaurren aldean hasi dira. Han, A-8 autobideak Antxoraino 3 karril izango ditu eta beste hainbeste Antxotik Donostiara. An-

txora iristerakoan (ez da autopistan ordainsaririk izango), eta gaur egun Molinao futbol zelaia kokatua dagoen tokian, biribilgune edo errotonda haundi bat eraikiko da. Hemenik portuko exkalextrikaino ere errepidea berrituko da, aipatu tokian beste biribilgune bat izango delarik trafikoa Donostiara edo Errenteria Oreretara bideratzeko. Trafikoan adituak direnek diotenez, Antxoko sahisbide honen gure barrutian N-I errepideak duen auto kopurua asko gutxituko du.

Honekin lotuta, marealtaren bestaldean kokatua zegoen Beissier enpresa historikoaren eraikinean botatze lanak hasi dira. Inguruan dauden enpresen eraikinean ere botatzen direnean, antxok aisialdirako hain baharrezkoa duen zonaldearen prestaketa lanak haste-

ko garaia izango da.

Lanen gainbegirada

Aurreko Branketan aipatu bezala, gure barrutian zenbait lan habian daude. Eman diezaiegun begiradaxo bat:

Hamarretxeta kalea: dagoeneko bukatzean daude kale honen berrikuntza-lanak. Lehengo zatia duela aste batzuk bukatu bazen ere, 'Beni' liburudendatik N-I errepideraino gelditzen zen zatia amitzeko arazo haundiagoak izan dituzte langileek, lurrazpiko hoditeria ezartzekoan batez ere.

Azoka: teiltatu berria ia jarria dago, eta kanpokaldearekin hasi dira langileak. Barnekaldeko egitura nola-koa izango den antzeman daiteke. Zumalalarregi kaleko eraikina: Lore-txorta elkartea kokatzen zen orubean eraikuntza berriaren oinarriak jartzen hasiak dira. Hilabete batzutan zehar inguru honetan kamioi mugimendua nabarmena izango da.

Muebles
Altzariak
RUIZTEGUI, s.a.

MOTA GUZTIETAKO ALTZARIAK
ZURE NEURRIKO FINANTZIAKETA

Nafarroa hiribidea, 15
Tfnok.: 943 510389-510736
Faxa: 943 510494
20110 PASAI ANTZO

PITXI TXULO
JATETXEA-TABERNA

EGUNEKO
MENUAK
ETA
BARRA
ZERBITZUA

Eskalantegi, 118
Tfn: 943 520 770

Molinao Auzoa
PASAI ANTZO

AMIO
Taberna

1934

Gure Zumardia, 27-20110-Pasata (Gipuzkoa)

URTIXINTXA
BULL

URTIXINTXA BULL, S.A.

Gipuzkoako English Mark
Darts operadoreak

Gure Zumardia 13, behea
Pasai Antxo. Tel. : 518527

Bar Goiherri

C/ Eskalantegi, 36 - Tel. 943 51 00 19
PASAI ANTZO

**MIMOS
TABERNA**

tel.:
943 51 85 27
Pasai Antxo

trintxerpe

"Pasaiaiko Badia" 2002 film laburren IV. Erakusketa

Trintxer Kulturalak antolatuta arrakasta handiz ospatu zen aurtengoan ere film laburren erakusketa. Urriaren 16tik 19ra bitartean, 143 film labor ikusteko aukera izan zen. Estatu osoko zuzendari eta produktoreek beraien lanak bidali dituzte Trintxerpeko erakusketara. Hauek izan dira aurtengo irabazleak:

Film labor hoberena:

Marc Andréseñ "Ex aqueo para Baldosas" (Bartzelona) eta David Hector Las Herasen "Dame Cambio" (Madril).

Gidoi hoberena:

Ciro Altabásen "Phobia" (Teruel).

Interprete hoberena:

Saturnino Garcia, Cesar Boschen "Cuento Negro" izenburuko film laburrarengatik.

Lehiaketan aurkeztutako lanez gain, bestelako bi sesio berezi egin ziren urriaren 18 eta 19an. Ostiral gauak, "Noche de terror" izenburupean, arrakasta itzela lortu zuen, jende asko aretora sartu ezinik gelditu baitzen. Larunbarekin, 35 mm-tan errodututako film laburrak erakutsi ziren, eta, sail hau ere ikusleen gustukoa izan zen.

Erakusketaren antolatzaileak pozik ageri dira film laburrak herrian erakutsi ahal izateagatik, baina batez ere, "zinearekin gozatu eta zinemarako bizi den jendearekin harremanetan jartzeko eskaintzen dien aukerarengatik". Era berean, esker onez hartu dute erakusketan zazpi zuzendari gazteen etorrera, eta batez ere, Saturnino Garciaeren presentzia, azken honek erakutsi zuen sinpatia eta umiltasunagatik. Saturnino



■ Aurreko orrian azaltzen den irudian irabazleen argazkia ikus dezakegu. Goikoan berriz, 'Pasaiaiko Badia' 2002 film laburren IV. erakusketa hau aurrera ateratzeko lan egin duten erakundetako nahiz babesletako ordezkariak irabazleekin. Beheko argazkian, Domingo Fernandez, Jesus Mari Moreda eta Pedro Etxaniz, erakusketaren antolatzaileak.



Garcia aktore hoberenari Goya saria jaso du, eta Sitgeseko eta El Mundo del Pais Vasco-ren aktore hoberena izan da. Aktorea Trintxerpen izan zen bere saria jasotzeko eta bertan honako hitz hauek esan zitue: "Horrelako leku batean oso gustura aurkitzen naiz, giro umil eta familiarrean. Horrek ez du esan nahi giroa pobrea denik, izan ere pobrea dena tristea baita, baina aitzitik umil dena duina da". Antolatzaileen esanetan aktoreak ederki laburbildu zuen bere hitzekin erakusketaren izpiritua, eta hori dela eta bide onean doazela sinetsirik daude. Branka aldizkariko orrialdeetatik ikusle guztiak datorren urteko erakusketan parte hartzera animatu nahi dituzte.

Branka

Branka Pasaiaiko-herri aldizkarikak

Trintxerpe nahiz San Pedroko informazioak osatzeko kolaboratzaileak behar ditu. Beraz, idazten, komikiekin, argazkilari bezala edo

dena-delakoarekin kolaboratu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan kontrazalean azaltzen diren helbideen bidez.



Oarso 13, behea esk. Pasai Antxo
Tel. 943 34 00 64 Fax 943 52 97 83
Irekita: 10:00/13:00 eta 16:00/20:00
Urtarrilak 22tik aurrera Larunbat arratsaldez irekita
WEB: <http://www.iturgaiz.com>
E-mail: majestik@iturgaiz.com

Pasai Antxoko dendan, nazioko zein inportazioko irudimenezko oihalen erakusketa handia eskaintzen dugu; eta Lezoko industrialdeko biltegian, eskaparateen apainketarako edozein motatako figurak dituzu alokatzeko. Gainera, mota guztietako karrozak 2000m2-ko erakusketan.




betiko
musika



Pasaiako Ontziola krisialdi latzean

TESTUA OLATZ MITXELENA



Pasaiako Ontziolaren langileek asanbladan eta gehiengo osoz lanuzteari ekitea erabaki zuten iragan irailaren 13an. Greba hasi zutenean, abuztuko soldata eta udako aparteko sariaren zati bat zor zieten. Ontzian lanean diharduten 90 langileen artean urduritasuna eta ezinegona nagusituz joan zen orduan. 28 egun lan egin gabe eman ostean, zorrak ordainduko dizkietela agindu diete, eta beharginak beraien lanpostuetara itzuli dira. Aitzitik, borroka ez da amaitu, orain bertan zorraz beterik dagoen enpresarentzako aurkeztu den bideragarritasun-planaren negoziaketetan ari baitira buru-belarri.

br-31

14


ERREPORTAJEA

br-31

15

ERREPORTAJEA

■ Manuel Arrillaga eta Jokin Galbenzu, Pasaiaiko Ontziolaren enpresa batzordeko kideak.



Jokin Galbenzu eta Manuel Arrillaga, Pasaiaiko Ontziolaren enpresa batzordeko kideak dira eta beraiek kontatu dizkigute ontziolan egun langileak pairatzen ari diren egoeraren nondik norakoak. Arestian esan bezala, irailaren 13an ekin zioten lanuzteari langileek, eta orotara 28 egun eman dituzte greban, kalean zein erakundeetan beraien egoera salatuz. "Hor egon gara, mobilizazioez gain, gure egoera azaltzen jende-ari, eta enpresa honentzako irtenbide bat nahi dugula azalduz" diosku Jokinek. Izan ere, azkenaldian bilera asko egin dituzte langileen ordezkariak. Jaurlaritza, Aldundia, Lezoko eta Pasaiaiko alkateak, Portuko Agintaritza eta Oarsoaldeko Garapen Agentzia. Den-denak izan dute egoeraren berri eta langileek denei eskatu diete beraien enpresarentzako irtenbide bat bila dezatela.

Pasaiaiko Ontziola enpresa orain dela zazpi urte sortu zen, eta lehendabiziko urteetan lanaldi oporak izan ziren bertan. Egun, aldiz, enpresak zorra handia du. Horregatik langileek ez dute ulertzen enpresa egun dagoen egoerara nola iritsi den, eta hori dela eta, Antton Askorreta, egun ontziolaren zuzendari gerentea, bere kargutik kentzea eskatu dute behin

«PROPOSATUKO DEN BIDERAGARRITASUN-PLANA OSO GOGORRA IZANGO DELA USTE DUGU»

«... ASTELEHENETIK HASI ETA IGANDERA ARTE IBILI DA JENDEA LANEAN. EZ DA IZAN JAI EGUNIK OPORRAK AILEGATU ARTE»

eta berriz. "Orain zazpi urte etorri zen gizon hori enpresa honetara eta enpresa garbi-garbi bat aurkitu 300 milioiekin; aurreneko urteetan kristoren lanaldiak, 3 edo 4 atunero, eta bakoitzak 1000 milioiko konponketa-kontratuarekin. Hori ikusi eta 6 edo 7 urteetan enpresa pikutara eramatea! Onartezina da".

Astelehenetik igandera bitarte egindako lan-ordu pila eta urte hauetan guztietan erakundeetatik jasotako dirulaguntza anitz ere dituzte hizpide Manuelek eta Jokinek "Hainbeste dirulaguntza jaso ditu, Gasteizetik, Foru Aldunditik eta leku guztietatik. Hilero kristoren dirutza egin du. Hor egin den lana pila! Astelehenetik hasi eta igandera arte ibili da jendea lanean. Ez da izan jai egunik oporrak ailegatu arte". Enpresak ematen dituen datuen arabera, urte batzuetan, 20000 ordu extratik gora egin dira. Honen aurrean, langileak asanbladan bildu eta Antton Askorreta enpresan sartzen ez uztea erabaki zuten "90 familiekin jokatu du, eta horretarako eskubiderik ez dago. Orain bi urte 40 langile aurrejubilatu zituen, horregatik kristoren dirutza jaso zuen berak, langileen diruarekin ere bera gelditu zen, eta egoera honetara ailegatzea orain... Horregatik berarengana joan

tikan kristoren dirutza jaso zuen berak, langileen diruarekin ere bera gelditu zen, eta egoera honetara ailegatzea orain... Horregatik berarengana joan

tikan kristoren dirutza jaso zuen berak, langileen diruarekin ere bera gelditu zen, eta egoera honetara ailegatzea orain... Horregatik berarengana joan



eta zera esan genion: "langileek asanblada batean onartu dugu zuk enpresa honetatik kanpora joan behar duzula".

Lanuzteaz egiten duten balorazioaz galdetuta, Manuel Arillagak zera dio: "balorazioa guretzako ona. 28 egun eman ditugu lanik egin gabe, eta lortu dugu tratua soldatekin, baina orain bestea dator: bideragarritasun-plana eta horren inguruko negoziatioak. Ni denak ikusi ditut enpresa honetan". Izan ere, Manuelek urte asko daramatza lanean sektorean eta egungo egoerak iraganean pasatako krisialdi latz asko ekartzen dizkio gogora.

Artikulu hau lantzen dihardugun bitartean, langileek oraindik ez dute eza gutzen aurkeztuko zaien bideragarritasun-plana, baina arduratuta ageri dira gogorra izango dela aurrekusten dutelako. "Proposatuko den bideragarritasun-plana oso gogorra izango dela uste dugu. Guretzako hoberena litzateke norbaitek kanpora joan behar izanez gero, prejubilazioen edo bestelako irtenbideen bidez izatea. Jende zaharra badago. Hori bai. Kontua ez da bakarrik izango kaleratzeak. Gelditzen den jendea zein egoeratan gelditu behar du?" galdetzen dute.

Bideragarritasun-plana ezagutu bezain laster, hura aztertu eta negoziaketetarako egutegia ados-

tuko dute. "Plana aztertu eta ikusi zein irtenbide eman diezaiokegun langilegoari. Baja traumatikoak saihestu behar ditugu, birkolokoazioak eta bestelako irtenbideak bilatu behar dira".

Une latzak datoz berriz ontziolaren langileen ztat. Enpresaren etorkizuna ziurtatzeko Jokin eta Manulek bi gauza ikusten dituzte garrantzitsu: enpresari on batek enpresa kudeatzea eta jende gaztearen aldeko apustu garbia egitea. Egun ontziolako langile gehien adina 50 urte ingurukoa da, eta 10 langile baino ez dira gazteagoak. "Inportantea da jende gaztea erakartzea sektore honetara. Orain arte Anttonek ez du jende gaztearengatik

apustu gogor bat egin. Horrelako enpresetan gazteengatik ez bada apustu gogorra egiten, eta ilusioa sortzen gazteari, arriskua hor dago, horrelako enpresa bat jenderik gabe gelditzea".

Hala eta guztiz ere, enpresa batzordeko ordezkariak ontziolak Pasaian etorkizuna baduela uste dute. Inguruan ez dago itsasontzien matxurak eta bestelakoak konpontzeko bestelako instalakuntzarik, eta kontuan hartuta portuan dagoen trafikoa, bertako instalakuntzak beharrezkoa dira. "Ixteko asmorik ez dute azaldu inongo instituziotan, hitzez gutxienean. Ez dagoena zehaztuta oraindik da zein motatako enpresa nahi duten" dio Jokinek, baina "Pasaiaik ontziola behar du".

«IXTEKO ASMORIK EZ DUTE AZALDU INONGO INSTITUZIOTAN, HITZEZ GUTXIENEAN. EZ DAGOENA ZEHAZTUTA ORAINDIK DA ZEIN MOTATAKO ENPRESA NAHI DUTEN»

kariak ontziolak Pasaian etorkizuna baduela uste dute. Inguruan ez dago itsasontzien matxurak eta bestelakoak konpontzeko bestelako instalakuntzarik, eta kontuan hartuta portuan dagoen trafikoa, bertako instalakuntzak beharrezkoa dira. "Ixteko asmorik ez dute azaldu inongo instituziotan, hitzez gutxienean. Ez dagoena zehaztuta oraindik da zein motatako enpresa nahi duten" dio Jokinek, baina "Pasaiaik ontziola behar du".

Bizi zaren barrutia alde batera utzita, zein barrutira joango zinateke bizitzera?



1 Andrés Ardao.
80 urte. Jubilatua.

Donibanera, kirol arloan duen historialarengatik.

2 Juanma Ollokiegi.
40 urte. Udaltzaina.

Ni hemendik ez naiz mugituko (San Juan). Eta mugitu ezker, Pasaiaiko beste barruti batera ez behintzat.

3 Javi Polo.
36 urte. Tabernaria.

Donibanera joango nintzateke.

4 Xabier Etxaniz.
29 urte. Irakaslea.

San Juan. San Juanen, batzutan, ondo pasatzen dut.

5 Yolanda Bon.
40 urte. Farmazi auxialarra.

Antxo, komunikazio-aukera handiak dituelako.

6 Ainize Berrotaran.
25 urte. Klinika-laguntzailea.

Zaila da aukeratzea, leku hoberenean bizi baikara (San Juan). Aukeratu behar badut Antxora joango nintzateke dituen komunikazio onengatik.

7 Ixiar Puy.
29 urte. Idazkaria.

Ni hemen geldituko nintzateke, Antxon. Zer dela eta? Polita delako ez, baina bai dituen garraio-aukerengatik.

8 Ortzadar Labaien/Itsaso Elustondo.
18/18. Ikaslea/Ostalaria.

San Juan. Herri txiki euskaldunaren itxura eta ezaugarriak mantentzen dituelako. Gainera, gu biokin, San Pedro eta San Juanen arteko tira-bira guztiak berehala amaituko liriteke.

9 Maribel Gimenez.
53 urte. Haur zaintzailea.

Donibane, Antxo baino askoz gehiago gustatzen zaidalako.

10 Cristina Lasa.
58 urte. Etxekoandrea.

Antxora joango nintzateke dauzkan komunikazio erraztasunengatik.

11 Iker Colino.
24 urte. Gidaria.

Donibanera agian, polita eta lasaia delako.

12 Txomin Ruzo. Tabernaria.

Trintxerpe. Bizitza asko du: tabernak, komertzioak, jendea, Azkuene kaleko martxa... eta San Pedro aldamenen dago.



Mikel Olaziregi,

Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren zuzendaria:

«Glamourraren atzean beti pertsonak daude»

TESTUA LANDER GARRO

Mikel Olaziregi Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren zuzendaria da, eta horregatik zaigu ezaguna. Gehienek, ordea, ez genekien jatorriz antxotarra zela. Aurtengo Zinemaldiaren azkeneko egunean, berrogeita sei urte bete zituen, Zinemaldiak berak baino lau urte gutxiago, izan ere aurtengoa Zinemaldiaren 50. edizioa izan da. Zinemaldiko zuzendaritzari, berriz, orain dela bi urte ekin zion, Diego Galanen lekukoa hartuz. Elkarrizketan, noski, zineaz, Zinemaldiaz eta horren inguruko guztiaz jardun dugu.



Bi urte igaro dira Zinemaldiaren zuzendaritza eskuratu zenuenetik. Orduz geroztik Zinemaldiak aro berri bati ekin diola uste duzu?

Ez, ez dut uste. Nik beti defenditu dut jarraipen lan bat egin dugula. Aurretik hartutako bideari jarraipena eman zaio eta ez dut uste aro berri bat hasi denik.

Kursaal aretoak ere alaketak eragin ditu Zinemaldian. Ikusle askok pentsatu izan dugu aldaketarekin giroa kutsatuko zela eta, gerora, horrek nolabait, beste aniztasun bat eragingo zuela. Zuk zer uste duzu?

Nik uste dut, Zinemaldiak uharteak bihurtu direla era bat. Baina hori ere ez da hainbestearinokoa. Zabaltegin, esaterako, "Intervención divina" izenburuko pelikula palestinar bat aurkeztu zen. Hemendik gutxira, pelikula korear bat estreinatuko da, gazte-diaren saria irabazi duena, hain zuzen. Beraz, badaude tantak, eta, gainera, uste dut pelikula horiek zinemaldiak existitzen direlako estreinatzen. Gu, Zinemaldi bezala, eta kontutan hartuz hamar egunetan zehar garatzen den ekintza bat dela, oso gutxi aportatu diezaiogegu egoera orokor horri, hor, azken finean interes ekonomiko handiak daudelako. Egia da globalizazio horretan zine amerikarrak duen pisua ikaragarri handia dela. Donostialdean zine-aretoak asko ugaritu direla, baina, aldiz, eskaintza ez da handitu. Nik uste dut orain pelikula erre egiten direla oso epe laburrean, eta pelikula txiki hauek irauten dutela batez ere distribuzio mota oso ezberdina dutelako. Esaterako, pelikula amerikar bat 300 kopiekin estreinatzen da. Horrek suposatzen du Donostian, eta Donostia hiri txikia da, pelikula horren hiru kopia daudela gutxienez estreinaldirako. Aldiz, "Intervención Divina" eta mota horretako pelikulak 20 kopiekin estreinatzen dira estatu osoan.

Zentzu honetan, esan nahiko nuke, Donostian orain badagoela areto bat, "Principe" Aretoa, beste mota bateko zinean espezializatu dena. Zinezaleen gustuko pelikulak aurkezten dituela uste dut. Industria egiteko zinea ere badago, baina hor irauten duten pelikulak beste aretoetan ez dute irauten. Nik uste dut Donostiako Zinemaldiak ematen duen bultzada urtean zehar ere ho-

relako manifestazioetan nabaritzen dela.

Zenbat ikusle izan dira aurten Zinemaldian?

Oraindik ez ditugu behin betiko datuak, baina uste dugu 200 mila pertsona baino gehiago joan direla proiektzioetara.

Hori izugarria da, ezta?

Zinemaldiaren zenbakietan pentsatzen duzunean hala gertatzen da. Aurten 240 pelikula eman dira. 700 emanaldi izan dira eta 200 milatik gorako ikusle. Nik uste dut zenbaki horiek oso handiak direla, eta hori ez dela tontakeria bat. Gonbidatuak, bai prentsa eta bai industriako jendea, hiru milatik gora etorri dira. Gonbidatu asko etortzen dira, eta bere kabuz ere jende asko hurbiltzen da.

Donostiako hotelak eta pentsioak gainezka izaten dira Zinemaldia bitartean. Zenbakiak oso handiak dira.

Nola egiten da pelikulen hautaketa? Zenbat zinta uzten dira kanpogan?

Bakarrik errealizadore berrien lehian parte hartzen duten filmak eta atal ofizialean parte hartzen duten pelikulak aukeratzeko, aukeraketako batzordeak mila pelikulatik gora ikusten ditu. Horrek esan nahi du bideoan ikusten ditugula batzuk, beste batzuk kopietan, beste batzuk beste zinemaldietan, eta beste batzuk bereziki egiten diren aukeraz-

ko bidaietan. Pelikula asko ikusten dira. Datu-batse bat egiten dugu orain ekoizten ari diren pelikulekin. 2600 titulu inguru izaten dira; hortik batzuk ez dira iristen eta beste batzuk gainontzeko zinemaldietara joaten dira. Pelikula asko edukitzen dira kontuan.

Eta beste zinemaldiekin nolako harremana duzue? Gatazka handia da estreinaldiak egiterako orduan? Interes joko handia egongo da, ezta?

Guk daukagun "A" kategoria, munduan ze-

har 10 zinemaldik besterik ez dute. Honek bere zailtasun puntua ere badu. "A" kategoria horren ondorioz, beste edozein zinemalditan aurkeztu diren pelikulak ezin dira atal ofizialean aurkeztu. Kontutan hartu behar dugu bakarrik uda garaian, abuztu hasieratik iraila bukaera arte, lau zinemaldi daudela "A" kategoriarekin; Montreal, Venecia, Locarno eta gu. Horrek suposatzen du ba-

karrik garai horretan bilatu behar direla atal ofizialean parte hartzeko 80 pelikulatik gora, denak kalitatezkoak eta beste zinemaldietan ikusi gabek. Hori ere zaila da. Nazioarteko Produktoreen Fundazioak, "A" kategoria hori ematen duen organismoak, laugarren postua ematen dio Donostiako Zinemaldiari, Canes, Berlin eta Venecia- ren atzetik. Venezia hor dago; bertako zinemaldia gurea baino bi aste lehenago bukatzen da. Kompetentzia izugarria da, baina horrek ez du ezer esan nahi.

Aurtengo kritikak oso onak izan dira, ezta?

Bai. Zentzu horretan oso pozik gaude. Azken finean, esan dugun bezala, urte osoan aritzen gara lanean pelikula horiek aukeratzeko, eta aurten bezala, adostasun batera iristen bazara, eta bai ikusleak, bai kritika, bai industria pozik badaude, adostasun hori lortzerakoan baduzu zure zoriona, eta zure poza.

Aurtengoak, hala ere, hika-mikaren bat sortu du, Illunbe plazaren ekitaldiarenak, esaterako, ez zelako jendearen parte-hartzea bultzatu eta kanpotik etorritako jendeak ez zuelako, antza, halako distirarik.


Gure asmoa, hasieratik, pretentsio handirik gabeko gauza bat egitea izan da. Urtebetetzeko jai bat egitea, berezia, eta zortzi mila pertsonentzat. Hor garbi genuen jai horrek bi eredu nagusi eduki behar zituela; alde batetik zinea eta Zinemaldiko 50 urte hauek, eta bestetik, jende hori guztia gustukoa izan zitekeen zerbait egin behar genuela, zine munduarekin jokatzuz, musika, antzerkia eta zinemaldiaren historia nahastuz. Horiek izan ziren erabili genituen oinarriak. Horrelako gauza bat antolatzean, kritika guztiei zabalik egon behar duzu, baina nik uste dut jende gehiena liluratua gelditu zela ikuskizunarekin. Francis Ford Coppola bertan izan zen.

Dezepzionatuak gelditu diren pertsonak badaudela? Gehiago espero zutenak? 8000 pertsonentzat zerbait antolatzean kritikak jasotzeko prest egon behar duzu beti.

Euskaraz azpitolatutako zinea ikusi ahal izan da aurten ere. Zergatik ez du arrakastarik?

Nik uste dut euskaldunok gure ardura tanta badugula horretan. Zinemaldia nazioartekoa da, baina gu, pixkanaka, zinemaldia Donostian dela, eta Euskadin egiten dela, eta hemengo hizkuntza euskara dela, erakutsi nahi dugu. Nik uste dut, jendeak pixkanaka hori onartzen duela, baina euskaldunok hor badugu ardurarik. Normalean gehiago kostatzen zaigu azpitolatuak euskaraz irakurtzea erdaraz baino. Gure aukeretan ere, ez diegu lehenastunik ematen euskarazko azpitoluak. Alde batetik, eskatu egiten ditugu, baina bestalde ez gara hain exigenteak gure buruarekin proiektzio horietara joateko.

«...NAHIZ ETA EGUN ORAINDIK PROIEKZIO GUZTIEN ARTEAN EUSKARAZKO AZPITITULUAK DITUZTENEK GARRANTZI GUTXI EDUKI, PIXKANAKA AURRERA EGINGO DUGU BIDE HORRETAN»



Argazkia: ARGIA

Hala ere, orain dela sei urte hasi ginen pelikula batzuetako azpitoluak euskaraz jartzen, gero eta pelikula gehiago eta garrantzitsuagori jartzen zaizkie azpitoluak, eta egoera hori pixkanaka normaltzen doa. Esan behar dut bide horretatik jarraituko dugula, eta nahiz eta egun oraindik proiektzio guztien artean euskarazko azpitoluak dituztenek garrantzi gutxi eduki, pixkanaka aurrera egingo dugu bide horretan.

Politikaren ukituak ere gauza txundigarriak utzi ditu aurten; Bloody Sunday horren lekuko. Euskal gatazkak nahiko zeresana duela badirudi ere, euskal zuzendariak Plenilunio bezalako gauzak aurkezten dituzte (hau orain dela bi urte), eskasak kritikoen ustetan. Zer dela eta?

Zergatik ez dago euskal zine gehiago Zinemaldian, ezta? Jardunaldi bat eskaintzen zaio euskal zineari, nazioartekoei erakusteko. Baina nik uste dut arazoa euskal ekoizpenean dagoela. Oso gutxi dago. Zabaltegin, "Galíndez" pelikula eduki

genuen, eta nire ustez hau oso ordezkapen ona izan zen. Hemen egin beharko litzatekeen zinemaren adibide bat. Aurreko batean bi euskal ekoizleen iritzia irakurri nuen, eta hauek zioten nahastu egin direla bitartekoak jartzen dituztenak eta eros-

ten dituztenak, ETB adibidez, eta baita pelikulak ekoizten dituztenak ere, eta horrek ez duela funtzionatu. Euskaraz errodututako pelikula bat oraindik ez da egin. Nik hor uste dut hor Zinemaldiak bere bitartekoak jartzen dituela euskal zinearen zerbitzuan, baina ez badago euskal zinemarik, guk ezer gutxi egin dezakegu.



Argazkia: (c) Donostiako Zinemaldia

Zinemaldia, jazzaldia...Donostia marko ezin hobe delako dirudi horrelako egitasmoetarako. Artea barra-barra, baina erakusleho, eskenatoki gisa beti, ezta? Esan nahi dut, beste lekuetan egin da artea gero hemen erakusteko.

Euskal Herriak, eta zine mundura hurbilduko naiz bakarrik, oso egile onak ditu; zuzendari onak daude, teknikari onak, aktore onak... Ezin duguna ahaztu da 2 milioi biztanleko herri bat gara, eta, hor industria fuerte bat sortzeko... Industria dela eta, gure aktore, teknikari eta gaitzakoek kanpora joan behar izan dute be-

ditugun Donostia sariak ere, hirurok, Dennis Hopper, Jessica Lange eta Bob Hoskins, ez dira izan halako edukirik gabeko aktoreak. Pertsonalitate handiko aktoreak izan dira. Aktoreei buruz askotan pentsatzen dugu jende kapritxoso eta erdi leloak direla, baina batzuek demostratu dute konpromisoak hartzen badakitela, eta gertuen duten arazoei aurre egiten ere badakitela. Alde batetik Coppola, bere zinea egiteko edozein arazo gainditu duen gizona; Jessica Lange, Bushen administrazioaren kontra eman zituen hitzekin; Dennis Hopper, bere infernu partikularrean ibili izan dela esanez; edo Bob Hopkins, hizkuntza oso ederrean, Shakesperianoa ia, esanez zorte ona dela maite duzun gauza bat egiteagatik ordaindu eta gainera saria jasotzea. Nik uste dut, glamour horren atzean beti pertsonak daudela, eta aurten bereziki nik uste dut, oso-oso garbi utzi dutela hori; pertsonak direla.

«ZINE ARETOAK ASKO UGARITU DIRA, BAINA, ALDIZ, ESKAINTZA EZ DA HANDITU»

raien lanak egitera. Nire ustez gure dramarik handiena da hori guztia kapitalizatzeko eta hemen bertan ekoizteko merkatu bat ez izatea. Baina nik uste ere herri honek munduari ematen dion energia inportantea dela.

Zinemaldiaren inguruko glamourrak inbidia emango die zenbaitzuei. Zuk gortinaren atzean ibilia zaren aldetik, nola bizi duzu hori?

Nik beti erabiltzen dut pareko oso on bat, eta da esatea Zinemaldia "Errusiar mendi" bat bezalakoa dela. Zinemaldia hasten denerako, jada abiadura handia hartu duen tramankulu bat da, eta jendea, etorri, pelikula aurkeztu, saria jaso-edo, eta alde egiten du. Aurten, egunkari batek niretzako oso hunkigarria izan den gauza bat esan du. Aurten "glamour inteligente"az hitz egin da, eta horrek esan nahi du gure nahia ulertu dela. Ez ditugu bakarrik loreontziak ekarri. Zuzendari pila bat etorri dira: Tabernaire, Coppola..., eta ekarri

DONOSTIA - SAN SEBASTIAN NAZIOARTEKO ZINEMALDIA FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE

EUSKARAZKO AZPITITULU ELEKTRONIKODUN FILMAK

ORdua	Ordua	AUTorea	IZENBURUA	SARIA
19	22:45etan	PRINCIPIA	THE ELECHROMMEL (KATONBIZKO DAMBEREA)	VOLKER SCHLÖNDORFF EZAGUTU
20	20:30etan	ASTORIA	LES QUATRE CENTS COUPS (LAURURAKO KOPURAK)	SIEKO SOAK
21	22:45etan	PRINCIPIA	THE ELECHROMMEL (KATONBIZKO DAMBEREA)	VOLKER SCHLÖNDORFF EZAGUTU
21	22:45etan	PRINCIPIA	DES VERLORENE THEE DER KATHARINA BLUM (KATHARINA BLUMEN OHREI GALDUA)	VOLKER SCHLÖNDORFF EZAGUTU
22	23:00etan	PRINCIPIA	JOHN OF RYE (EZABURUEN DUTUA)	SIEKO SOAK
23	22:30etan	ASTORIA	PELUP TOM (ZUZAN ARGAZKILARIA)	MICHAEL POWELL
24	20:30etan	ASTORIA	THE COTTON CLUB	FRANCIS FORD COPPOLARI GIMENALEA
24	21:00etan	ASTORIA	THE VERLORENE THEE DER KATHARINA BLUM (KATHARINA BLUMEN OHREI GALDUA)	VOLKER SCHLÖNDORFF EZAGUTU
25	20:00etan	ASTORIA	THE CONVERSATION	FRANCIS FORD COPPOLARI GIMENALEA
25	22:30etan	PRINCIPIA	LES QUATRE CENTS COUPS (LAURURAKO KOPURAK)	SIEKO SOAK
26	19:30etan	ASTORIA	JOHN OF RYE (EZABURUEN DUTUA)	SIEKO SOAK
26	22:30etan	ASTORIA	THE RED SHOES (ZAPATILAKO GORRIAK)	MICHAEL POWELL
27	19:30etan	PRINCIPIA	THE COTTON CLUB	FRANCIS FORD COPPOLARI GIMENALEA
27	19:30etan	ASTORIA	THE CONVERSATION (ELKARRAZKETA)	FRANCIS FORD COPPOLARI GIMENALEA
27	22:45etan	PRINCIPIA	THE RED SHOES (ZAPATILAKO GORRIAK)	MICHAEL POWELL
28	17:00etan	PRINCIPIA	PELUP TOM (ZUZAN ARGAZKILARIA)	MICHAEL POWELL
28	19:30etan	PRINCIPIA	BLOODY SUNDAY	ZABALTEGI
28	22:30etan	PRINCIPIA	MIS VALLA MENNEN VYTTA (MAGARE GARELLO GIZONA)	ZABALTEGI

EUSKARAZ BIKOIZTUTAKO BERTSIOA

Egunero goizeko 10etatik aurrera, 2.500 ikasle bertaratuko dira **SPY KIDS** emanaldi ikusgarrietara, 400 m²-ko pantaila erraldoiaz.

1000 pertsona ere gonbidatu dira.

■ Donostiako 50. Nazioarteko Zinemaldian euskaraz azpigitu eta bikoiztutako filmen-egitaraua aurkezten zuen kartela.

Berdegunak eta belar-mozketen mantentzerako lanak adjudikatu dira

Bianako "Viales de Navarra" entresak izango du hemendik aurrera Pasaiaiko berdeguneak mantentzeko ardura. Enpresa hau izan da lehiaketa publikora aurkeztutako bost entresen artean adjudikazioa irabazi duena. Forestalek urriaren 21az geroztik ekin diote lanari. Adjudikazioaz gain, beste lan batzuk ere egin berri dira; esaterako, Esnabide kaleko zuhaitzen inausketa, eta Artxipi bideko eta Aberneta ubideko belarraren mozketak. Udalak adjudikazio honen berri emateko zabaldu duen oharrean datozen asteetan egoera normaltzeko lanak burutzea espero dela dio, aurrerantzean berdeguneen konponketa-lanak maiztasunez egin ahal izateko eta lan hauekin herriaren itxura hobetzeko.

Langabetuentzako trebatze ikastaroak

Urtero bezala, Oarsoaldeako Garapen Agentziak eskualdeko langabetuen intzerzio laborala erraztera zuzendutako ikastaroen eskaintza martxan jarri du. Agentziak zabaldu dituen arabera formazio-ikastaro hauek jasotzen duten pertsonen %8a lana lortzen du. Hauek dira aurten eskainiko diren ikastaroak:

1. Soldadura. Iraupena: 425 ordu. Emakumeei zuzendutako ikastaroa
2. Argiztapen eszenikorako pertsonal tekniko. Iraupena: 343 ordu. Elektrizitatean esperientzia duten pertsonen zuzendutako ikastaroa.

3. Mantentze informatikoa. Iraupena: 219 ordu. Administrazio esperientzia duten pertsonen zuzendutako ikastaroa. (Ikastaro hauek egingo dituzten pertsonen enpresetan praktikak egiteko aukera izango dute).
- 4.- Trebakuntza lanpostuan bertan.- 40 pertsonen izango dute aukera hainbat enpresetan eta lanpostu zehatzetan formazioa jasotzeko. Hauez gain, Oarsoaldeak beste bi ikastaro antolatu ditu. Hauek langabetuei ez ezik bestelako pertsonen ere irekita daude:
 - 1.- Enpresen kudeaketa.- eskualdean enpresa bat sortzeko asmoa duten pertsonentzako aholkularitza ikastaroa.
 - 2.- Finantzei buruzko ikastaroa.- On line trebakuntza, enpresari-tzari buruzko ezagutza beharrezkoa duten pertsonen zuzenduta. Eskaintza honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, 943344044 telefono-zenbakira deitu edo Oarsoaldea S.A.k Errenteriako Olibet auzoan duen lokaletara jo.

Laboa Monsino-rea hil da

José Sebastián Laboa apezpikua eta Vatikanoko nuntzioak iragan



urriaren 24an zerndu zen, gaixotasun luze bat jasan ondoren. Bere heriotzak Euskal Herriko nahiz mundu osoko pertsona ugariaren nahiagabea eragin du. Izan ere, Laboak Batikanorako diplomazia lan ugari egin zituen munduan zehar, Nazioarteko gatazka oso garrantzitsuetan parte hartuz. Ezagunak dira Panamá,


Uruguay nahiz Libian egin zituen bitartekaritza lanak. Laboa, 1923ko urtarrilean jaio zen Pasai Donibanen. 1949an apaiz ordenatu zen eta gerora Teologian eta Zuzenbidean lizenziatuko zen.. Hasieran batean Teologia irakaslea izateko asmoa izan zuen arren, Vatikanoko diplomaziorako Laboak zituena doaiak zirela eta, bere nuntzioa egin zuen eta gerora Vatikanara heltzen ziren estatu buruak hartzeko ardura emango zioten. Lagun asko izan zen Artzai Onaren Katedralean egin ziren bere aldeko elizkizunetan. Donibanen, bere jaoterrian, pasa den urriaren 27, igandeareko ohiko mezan Laboari agur esan zitzaion bertako San Juan Bautista elizan, eta hurrengo egunean, astelehenarekin, udaleko batzar aretoan, Pasaiako Hiriko seme kuttun izendatu zitzaion, Jose Sebastian Laboa Gallegori.

"Pasaiako Gazteen Hizkuntza jokaerak" iker-tzeko beka

Pasaiako gazteek euskarari buruz dituzten jarrerak aztertzeke xedez, udaleko Euskara Sailak ikerketa baterako beka eskaini du. Azterketa kualitatiboa eta kuantitatiboa izango da; hots, hizkuntza gaitasuna, motibazioa, jarrerak, pertzepzioak... aztertuko dira batetik, eta bestetik, hizkuntzarekiko dituzten aurreiritziak, diskurtsoak, eta beharrak, besteak beste. Beka eskuratzeko epea urriaren amaiera arte izan da zabalik. Bekadunek hamabi hilabetetako epea izango dute ikerketa lana aurrera ateratzeko. Lanaren jabetza Pasaiako Udalarena izango da, eta honek lana argitaratzea erabaki dezake.

zuk zeuk!

LIBURUA
'KORAPILOAK'
Jasone Osoro. ELKAR.



Zer da logikatik, arrazonamendutik ihes egiten duen hori? Ezin harrapa eta era berean bazter ezina duguna? Zer da edalontzia begiratuta batzuetan erdi huts eta bestetan erdi beteak ikusarazten digun hori?

SENTIMENDUAK: Hain arruntak denongan eta era berean konplexutasunaren mugak ukitzeraz eramaten gaituztenak.

Liburu honetan, kontakizun ezberdinen bitartez islatzen digu nolatan norberarengan, edozeinengan, sentimenduek, gure barnealdean korapiloak eraikitzen doazen, eta nolatan bizitza korapilo horien arabera mugatu eta zentzua hartzen duen.

17 kontakizun, bakoitzaren aurkezpena olerki batek emanda eta mamia bertan islatua geratzen delarik.

Kontakizun ezberdinak, pertsonaia ezberdinez baina amankomunean loturaren bat edukiko dutenak, hari fin batez bata bestearekin kateaturik egongo bailira.

Pertsonaia ezezagunak, korapilo ezezagunekin; baina era berean bakoitzak gure baitan daramazkigun hainbat korapilo antzemangarri.

Bizitza = Sentimenduak = Korapiloak.
Bizitza = Korapiloak betetako ari fina.■



SUSANA PORTUGAL

FILMEA
'LOS LUNES AL SOL'
Zuz.: Fernando Leon. Akt.: Javier Bardem, Luis Tosar, Jose Angel Egido. Espainia, 2002.



Bizitza. Filmea bizitza bera da. Bizitzaren alderik ilun eta garratzena baina bizitza azken finean.

Filme hau, azken hamar urte hauetan Espainian egin den onenarikoa da zalantzarik gabe. Fernando Leon zuzendariak, gaurkotatua duen gai bati buelta eman dio, desesperantza eta tristeziari ironia zipritituz batzuk botetaz.

Istoria Galizian kokatzen da, Vigon zehazki. Bertako ontziolak itxi beharrear aurkitzen dira eta 'Santa' (Javier Bardem, protagonista paperean itzel dagoena) eta bere kideak kalean gelditzea beste irtenbiderik ez dute.

Hemendik aurrera langabetu hauen eguneroko borroka isladatzen zaigu pantailan. Ez dugu ahaztu behar sendiak hartzen duen garrantzia honelako kasuetan, filmean honek badu tokirik, langabetutako kide bat buruaz-beste egiteraino. Arazo familiar hauek dira zalantza izpirik gabe filmeko pasarterik gordinenak.

Egia esan behar badut, filmea ikusi nuenean, Pasaia etorri zitzaidan gogora segituan. Zenbat antzeko istorio gordeko ditu gure herriak. Zenbat 'Santa'. Zenbat astelehen eguzkitan.■



ANDER POZA

LIBURUA
'CIUDAD RETRETE'
Patxi Irurzun. TXALAPARTA.



Patxi Irurzunek ostiralero Gazte Algaran idatzi ohi duen zutabea oso gustora irakurtzen dut, eta liburu honen berri izan nuenean, ba... irakurtzen hasi nintzen. Hasi eta bukatu.

Istorio gordina. Errealitate gordina. Lantegi batekolangile batzuen protestaren kronika da, materiale arriskutsuekin lanean ibiltzearen ondorioak sufritzen hasi direlako.

Gizarteko talde baztertuenetakoa dira langile hauek, bergizarteratzearen aitzakiaz hiriko lantegi garrantzitsuenean lanean jarri dituztenak. Materiale hilgarriekin lanean.

Liburuak langile hauetako hiru ezagutzeko aukera ematen digu, eta merezi du, benetan. Beraien bidez gertaera gehienek berri jasoko dugu, baina baita askoz gehiago ere.

Egunkarietan egunero irakur ditzakegu halako berriak, ohituta gaude... eta horrexegatik (ere) merezi du irakurtzeak.■



ENARA MATEO

Horrelakoak ginen



San Juango argazki honetan zenbat gauza falta diren: Meipi falta da, San Roque falta da, Lourdes txiki falta da, Bortalaborda falta da, Zentrala falta da. Nola aldatu den San Juan, orain hondakin grisak diren PYSBE inguru guzti hori indartsua agertzen da argazki honetan. Denen gaineratik desagertutako Bordaundi baserri izugarria kokatzen da, bere sagasti eta baratzeekin.

Iraganari begirada

PASAIA DONOSTIAKO PORTUA?

Ez, Pasaia ez da Donostiako portua, baina ez Donostiak ez zuelako nahi izan. Ez naiz ari orain dela 200, 300 edo 400 urte, mende honen erdi aldeaz baizik. 1945 urteko azaroan hain zuzen ere, Donostiako udalak Antxo eta bere merkatal portua eta San Pedro bera arrantza portuarekin anexionatzeko eskaera aurkeztu zuen Gobernazioaren Ministerioan.

Donostiak honako arrazoiak argudiatzen zituen besteak beste:

- Astigarraga eta Altza anexionatuak zituen jada eta anexion berri hau eskatzeko beharrezkoak ziren 100.000 biztanle kopurua gainditzen zuela.
- Antxo eta San Pedro Altza eta Donostiaren menpe egon zirela.
- Donostia eta Pasaiaren arteko mugak garbi ez zeudela.
- Pasaiak udalerrri bezala zituen betebeharrei erantzuteko gaitasun ekonomiko eza.
- Antxo eta San Pedroko biztanleek Donostiako eskoletara bidaltzen zituztela beraien haurrak.

Baina pasaitarrak gogor agertu ziren anexion saiakera honen aurrean, Donostiaren indarra handia zen, baina historia Pasaiaren alde zegoen. Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundian gure herriaren alde agertu ziren. Madrilen ere anexionaren aurkako jarrera erakutsi zuten. **BORDAUNDI**